



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko abenduaren 5a

149. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gastu erregela berriak eta egokitu dezan udalek ematen dituzten zerbitzu publikoen beharrezanetara. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklassifikatzeko behar den erabakia har dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Ezkerreko-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitio Erruki Etxea egoitzako plantillari, eta Eskubide Sozialetako Departamentua premiatzen baitu bitartekotza egin dezan gatazka horretan, eta aldean arteko akordioa erraztu dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratu eta erabat arbuiatzen baitu duela gutxi Egipton izandako atentatua. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat kondenatzen baititu pertsonaren duintasunaren kontra Libian gertatzen ari diren praktikak. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatearen Hitzarmen Ekonomikoaren aldeko jarrera aldarrikatzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, “Tierra Estella” BHIari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen dauzkan Nafarroako Urruneko Hezkuntza Eskola Ofizialaren egoitza beste leku batera eramatea dela eta. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, ikastetxeetako eremuak eskolako ordutegian erreibindikazio politikoetarako erabiltzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, ohe-planifikazioari eta ohiko ospitaleratzeaz bestelako aukerei buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, armarriak, intsigniak, plakak eta beste objektu batzuk kentzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia aldatzea (13. or.).
- Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordea. Batzordearen ondorioztapenak onesteko epea luzatzea (14. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gastu errege-  
la berrikus eta egokitu dezan udalek ematen dituzten zerbitzu publiko-  
en beharrianen arabera.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU.*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017koa-  
zaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Ba-  
tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen,  
besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi  
Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko  
mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua pre-  
miatzen baita gastu erregela berrikus eta egokitu  
dezan udalek ematen dituzten zerbitzu publikoen  
beharrianen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-  
an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta  
zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari  
ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko  
hamabietan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamen-  
tarioko eledun María Chivite Navascués andreak,  
Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren  
babesean, honako mozio hau aurkezten du,  
Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Toki administrazioa gertukoena da herritarrent-  
zat. Gure jardunaren erdigunea pertsonak dira,  
haien eskubideak eta ongizatea. Sozialistak era-  
kusten ari gara udalak beste modu batean gober-  
natzen ahal direla, eraginkortasun eta ardurare-  
kin, bestelako jokaera erabilita, sentikorra, hurbila  
eta solidarioa. PSOEren apustua udal sendoak  
dira, erabakitzeko ahalmena dutenak, bai eta  
baliabide egokiak ere, herritarren eskaerei erant-  
zuteko. Beraz, ulertzen da etorkizuneko eskumen-

esparrua osatu beharko dela finantziario sistema  
egonkor eta behar adinakoarekin.

PPren gobernuak, azkeneko urteotan, aurre-  
kontuen eta ekonomiaren kontrol estua ezarri die  
toki entitateei, hainbat alderdi arautuz, eta udalak  
dagokien papera betetzeko ia aukerarik gabe  
utziz ongizate-zerbitzuen hobekuntzan, enplegu-  
sorreran eta eskatzen diren gertuko zerbitzu guz-  
tien arloan.

Eta hori guztia, gainera, toki administrazioak  
aski eta soberan bete dituen aurrekontu-egon-  
kortasunerako dituen konpromisoak eta Gober-  
nuak markatutako helburuak.

Lehenengo eta behin, 2016ko ekitaldian, toki  
korporazioek, oro har, gastu zenbakarrian %  
1,2ko jaitsiera izan dute; alegia, ekitaldi honetan  
bete egin dute gastu erregela, baimendutako  
aldearen tasa % 1,8 delako; gainera, heldu diren  
urteetarako finkatutako helburuetan murrizte-joera  
ere betetzen da.

Aurrekontuen egonkortasunaren aldetik toki  
korporazioetarako onetsitako helburua, joan den  
urtean, egoera orekatura iristea zen, eta erregis-  
tratutako emaitza 6.847 milioi euroko superabita  
izan da; hori BPGaren % 0,61 da, eta defizitik  
gabeko administrazio bakarra da. Horrekin batera,  
sortutako superabitaren erabilerak baldintza eta  
muga batzuk ditu, bakarrik baimentzen delako  
“ikusuntu finantzariotik jasangarriak” diren inbert-  
sioetarako; horrek, xede guztiz estu batzuk ezart-  
zeaz gain, ez du ahalbidetzen, inola ere, gastu  
arruntetarako inbertsiorik.

Zor publikoko helburuei dagokienez, 2016ko  
helburua BPGaren % 0,3a izan zen, eta ekitaldia-  
ren amaieran % 2,9ra iritsi zen, ezarritako helbu-  
ruei halatan berriro ere beterik. Hurrengo urteeta-  
rako ezarritako zifretan ere portzentajea murrizten  
da, eta neurri horrek diskriminazio garbia dakar

tokiko gobernuztat, Estatuarekin eta autonomia-erkidegoekin alderatuta, horiek ez dutelako gisa horretako mugarik, nahiz eta bien artean ia zor osoa biltzen duten.

Aurreko guztiarekin batera, ez dugu ahaztu behar toki administrazioko enplegatu publikoen kopuruaren murrizketa: 2011ko urtarrilean 647.488 ziren, eta 2016ko uztailean, berriz, 547.825; % 15,39 gutxiago, beraz. Horren ondorioz, toki entitateek zailtasun larriak pairatzen dituzte, derrigorrez esleiturik dituzten zerbitzuak emateko, eta arazoa areagotu egiten da udalerritxiki eta ertinetan.

Ikusten ari garenez, toki entitateen egoerak eskatzen du Gobernuak serio hartzea urteetan zehar planteatzen ari diren erreibindikazioak: gastu erregelaren, superabitaren norakoaren, zor publikoaren eta berrezarpen-tasaren berrikustea, egunero konpondu behar izaten dituzten arazoei aurre egiteko eta beharrezko zerbitzu publikoak ematen jarraitzeko, eta maniobra tarte bat ematea 2018ko udal aurrekontuak egokiro prestatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Gastu erregela berrikustea eta egokitzea udalek ematen dituzten zerbitzu publikoen beha-

rrizantetara, nazioarteko jardunbiderik onenei jarraituz eta kontu publikoen iraunkortasunaren irizpideak kontuan harturik zikloan zehar.

2. Gobernuak helburuei ezarritako mugak kentzea, toki entitateek modua izan dezaten, betiere kontuak ongi bideratuak badituzte eta haien finantza-autonomia osoaren bidez, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean sortzen duten superabita herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak eta programak sustatzeko: politika sozialak, enplegurako politika aktiboak, berdintasuneko programak, gazteriaren arloko politikak, eta abar.

3. Murrizketak kentzea toki entitateek zorpetze-eragiketak ituntzeari, ez badaude sartuta Egonkortasunari buruzko Legeko kasuetan.

4. Toki administrazioko efektiboan berrezarpen-tasaren arauketa aldatzea, halako moldez non lehentasuneko intereseko zerbitzuetan % 150eraino iritsiko baita, eta gainerako udal zerbitzuetan, % 100eraino.

5. Hori guztia, Nafarroako foru araubideak tokiko eta aurrekontu-bateratzeko gaietan bereak dituen eskumenen barruan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 23an.

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan.**

*GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Iragan otsailaren 15ean lan-bilkura bat egin genuen Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean, "Sanfermines 78: Gogoa!" herri ekimenaren ordezkariekin, eta horretan azaldu ziguten nolako ekimen-kanpaina egiteko asmoa duten, datozen hilabeteetan, 1978ko sanferminetan Iruñean izandako gertakarien 40. urteurrena betetzearen kariatara. Halaber, eskaera zehatz bat egin ziguten; hain zuzen ere, mozio honetan jasotzen dugun erabaki proposamenean adierazten dena.

Heldu den urtean, 2018an, berrogei urte bete-ko dira 1978ko sanferminetatik. Hamar mila pert-

sona izan ziren zezen-plazan poliziak egindako eraso basatiaren lekuko. Han su errealez tiro egin zen hondarrean nahiz harmailetan zegoen jendearen aurka, bereizkuntzarik egin gabe. Balaz zaurituriko zazpi pertsona izan ziren zezen-plazan; horietako bat, oso larri. Eta beste dozenaka batzuk artatuak izan ziren zezen-plazako erizaintzan bertan.

Kalean, poliziak tiroz hil zuen Germán Rodríguez gaztea. Hilda erori zen lekuan 35 bala-inpaktu aurkitu ziren; gehienak, 0,80 eta 2,30 metro bitarteko altueran. Polizia-igorgailuan honako agindu hauek grabatu ziren: "Ahal duzuen indar guztiarekin jaurti, ahal bezain bortitzen. Ez izan inor hiltzeko beldurrik!"

Polizien beraren datuen arabera, uztailaren 8an 130 pistola- eta subfusil-bala, gomazko 4.000 pilota baino gehiago eta ia 2.000 ke-pote eta gas negar-eragile jaurti ziren. Azken emaitza: eraildako pertsona bat eta balaz zaurituriko hamar; horietakoren bat, larri. Eta 170 pertsona artaturik pilotakadak, kolpeak, hausturak, ke-inhalazioak eta abar zirela-eta. Horregatik guztiagatik, Iruñeko Udalak festak bertan behera uztea erabaki zuen.

Halere, ez zen aitortu inolako erantzukizun penal, zibil edo politikorik. Gertakari horiek zirela-eta abiarazitako sumarioak (Germán Rodríguezen hilketak, zezen-plazan sartzea, baliatutako errepre- sio orokorra, egindako kalteak...) auzitegiek artxi- batu egin zituzten. Inor ez zen auzipetuen aulkian eseri ere egitera iritsi.

Azken urteotan, urrats garrantzitsuak egin dira oro har, eta bereziki Nafarroan, memoria historio- koa berreskuratzeari dagokionez. Hori dela-eta nafar erakundeek –Foru Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak eta zenbait udalak– hartutako kon- promisoek oinarri sendoak ezarri dituzte egiaren, justiziaren eta erreparazioaren bidean aurrerapau- soak eman ahal izateko.

Honako eskaera hau oinarrituta dago Sekretu Ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1968 Legean, zeina urriaren 7ko 48/1978 Legeak aldatu bait- zuen; Administrazio Publikoen Araubide Juridiko- ari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko

azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluko h) letran; eta Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 12. artikuluan eta hurrengoetan –horien bidez arautzen da, besteak beste, herritarrek informazio publikoa jasotzeko eta Administrazio Publikoen artxiboetan eta erregistroetan sarbidea izateko eskubidea–.

Badira, gainera, egiten den eskaeraren gisako aurrekariak; esaterako, Parlamentu honek berak 2016an egindako eskaera, Jurramendin 1976an izandako gertakariei buruzkoa, orduan erabaki baitzen Gobernu zentralari eskatzea gertakari haiei buruzko dokumentazioaren desklasifikazioa.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar den erabakia har

dezan, Sekretu Ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1968 Legean ezarritakoarekin bat –urriaren 7ko 48/1978 Legeak aldatu zuen–, 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko, eta zehazki, honekin batera doan eranskinean adierazitakoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren Ministro Kontseiluari igorriko dio mozio hau.

Iruñean, 2017ko azaroaren 23an.

Foru parlamentariak: Virginia Alemán Arrastio, Bakartxo Ruiz Jaso, Laura Pérez Ruano, Inmaculada Jurío Macaya eta José Miguel Nuin Moreno

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierzten baitio Erruki Etxea egoitzako plantillari, eta Eskubide Sozialetako Departamentua premiatzen baitu bitartekotza egin dezan gatazka horretan, eta aldean arteko akordioa erraztu dezan.**

#### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio Erruki Etxea egoitzako plantillari.

2. Nafarroako Parlamentuak Eskubide Sozialetako Departamentua premiatzen du bitartekotza egin dezan gatazka horretan eta aldean arteko akordioa erraztu dezan”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratu eta erabat arbuiatzen baitu duela gutxi Egipton izandako atentatua.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak deitoratu eta erabat arbuiatzen du ekintza terrorista hau, zeinean bizia galdu baitute ehunka pertsona errugabek bereizkuntza gabe, horien artean dozenaka haurrek, pertsona horiek beren erlijio-eskubidea askatasunez egikaritzen zuten bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Egiptoko herriaren saminarekin, bereziki Bir al Abed herriarekin, eta haien esanetara jartzen da.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatu Islamiarren jardueran terrorista kondenatzen du, baita

ekintza terrorista oro ere, eta eskatzen du berehala amai dadila indarkeria, edozein motatakoa.

4. 4. Nafarroako Parlamentuak erlijio-askatasuna babesten du munduko edozein tokitan, eta babeste ditu bai eskubide hori baliatu nahi duten pertsonak bai eskubide berarekin erlijio- edo sinesmen-gune orotatik kanpo daudela adierazten dutenak, eta konpromisoa hartzen du, bi kasuetan, pertsona horien eskubidea berme guztiekin gauzatu dadin”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat kondenatzen baititu pertsonaren duintasunaren kontra Libian gertatzen ari diren praktikak.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabat kondenatzen ditu pertsonaren duintasunaren kontra Libian gertatzen ari diren praktikak.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du giza eskubideekin duen konpromisoa, giza eskubideen adierazpen unibertsalean jasotzen den moduan.

3. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea eta Nazio Batuen Erakundea bezalakoek eginiko deialdiekin, Libiako esklabo immigranteen salerosketari amaiera emateko”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatearen Hitzarmen Ekonomikoaren aldeko jarraera aldarrikatzen baitu.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatearen Hitzarmen Ekonomikoaren aldeko jarraera aldarrikatzen du; izan ere, gure foru araubidearen adierazpide garrantzitsu bat da, eta Nafarroako herritarrei dagokien eskubide historiko eta demokratiko bat.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu zenbait ordezkari politikoren adierazpenak,

Nafarroaren elkartasuna auzitan jartzen dutenak, Nafarroako Foru Araubidearen Hitzarmen Ekonomikoa bezalako tresna bereki baten aurkako erasotzat jotzen dituelako.

3. Nafarroako Parlamentuaren ustez, lehenbailehen lortu beharra dago akordio bat, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmeneko ekarpena gaurkotuko duena indarreko bosturtekorako”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, “Tierra Estella” BHIari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, “Tierra Estella” BHIari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

“Tierra Estella” Bigarren Hezkuntzako Institutuak ingelesezko atal elebidunak dauzka ezarriak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. Mailan jada; horri esker, Hezkuntza Departamentuak ezartzen duen moduan, ingelesa erabat edo partzialki komunikazio-hizkuntza gisa erabilita gara dezake irakasgai bateko edo zenbaitetako curriculum. Departamentuak azpimarratzen duen helburua da hizkuntzaren eta edukiaren ikaskuntza uztartzea. Ikasleak DBHko 1. mailan sartzen dira programan.

Programan sartu nahi duten ikasleek ebaluazio bat gainditu behar dute, eta ebaluazio hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eginen duten ikastetxean sartzean egiten da.

Bestalde, eta hau beste kontu bat da, departamentuak atal elebidunenaz bestelako araudi bat ezarri zuen Ingelesez Ikasteko Programari jarraitutasuna emateko; hain zuzen ere, Bigarren Hezkuntzako Programa Eleaniztunak arautzen dituen.

Departamentuak onetsitako araudiaren arabera, Lehen Hezkuntzan atzerriko hizkuntza batean ikasteko programa bat duten ikastetxeek programa eleaniztuna eskainiko dute, atal elebidunak eta bigarren hezkuntza arrunta ezertan ere kaltetu gabe, departamentuak ezartzen duen atxikipen-plangintza lehenetsiz.

Hori guztia dela-eta, honako galdera hauei idatziz erantzutea nahi dugu:

“Tierra Estella” BHIko atal elebidunen gainetik Bigarren Hezkuntzako Programa Eleaniztunak lehenesteko aukera planteatu al du Hezkuntza Departamentuak?

Baiezkoan, zein dira arrazoiak? Ezezkoan, nor da horren arduraduna?

Departamentuak atal elebidunen aukera eskainiko al die 2018-2019 ikasturtean “Tierra Estella” BHIin DBHko 1. mailan matrikulatzen diren ikasleei?

Zer urrats egin dira?

Departamentua inolako harremanetan jarri al da ikastetxearekin hori dela-eta?

Departamentua inolako harremanetan jarri al da ikastetxeko gurasoekin hori dela-eta?

Iritzirik eskatu al zaie ikastetxeko gurasoei?

Departamentuak ba al du aukera horrek ikasle-en gurasoen artean sortu duen kezka berri?

Corellan, 2017ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen dauzkan Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialaren egoitza beste leku batera eramatea dela eta.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen dauzkan Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialaren egoitza beste leku batera eramatea dela eta.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialaren egoitza –Iruñeko Alde Zaharrean, hiriaren erdian, baitago– beste inora eramateko?

Zergatik?

Iruñaren erdialdeko beste leku batera eramatea aztertzen ari al da? Departamentuaren ustez egokia al da ikastetxe hori Iruñeko Alde Zaharretik ateratzea? Departamentuak zer kokaleku darabilta gogoan?

Departamentuak zer epe darabil?

Corellan, 2017ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, ikastetxeetako eremuak eskolako ordutegian erreibindikazio politikoetarako erabiltzeari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxeetako eremuak eskolako ordutegian erreibindikazio politikoetarako erabiltzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak jaso al du informaziorik, komunikaziorik edo salaketarik, ikastetxeetako zenbait eremu eskola orduetan ikasleek erreibindikazio politikoak egiteko eta, inoiz, behin-behineko espetxealdian dauden pertsonen erreko-nozimendua egiteko erabili izanari buruz?

Zehaztu ikastetxea, data eta egindako jarduerak.

Departamentuak hartu al du neurririk, gisa horretako jokabideak errepika ez daitezen?

Hezkuntza Departamentuak identifikatuta al dauka arduradunak?

Zer jarraibide eman zaie ikastetxe horietako zuzendaritza-taldeei halakorik errepika ez dadin?

Corellan, 2017ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, ohe-planifikazioari eta ohiko ospitaleratze bestelako aukerei buruzkoa.**

*SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, ohe-planifikazioari eta ohiko ospitaleratze bestelako aukerei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Osasuneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

- Gobernuak ba al dauka ohe-planifikazioari eta ohiko ospitaleratzeaz bestelako aukerei buruzko dokumenturik?

Iruñean, 2017ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

## **Galdera, armarriak, intsigniak, plakak eta beste objektu batzuk kentzeari buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, armarriak, intsigniak, plakak eta beste objektu batzuk kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Kontuan hartuta 33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa –zehazki, 11. artikulua– nahiz Memoria historikoari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legea –zehazki, 15.1 eta 15.4 artikulua–,

- Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz hartu ditu bere eskumenen esparruan, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea indarrean sartu zenez geroztik, altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarriak, intsigniak, plakak eta beste orotzapen-objektu edo -aipamenak kentzeko?

- Nafarroako Gobernuak espedienterik abiarazi al du entitate publikoei edo jabe pribatuei diru-laguntza edo laguntza publikoak kentzeko, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 11. artikulua edo Memoria historikoari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 15.1 eta 15.5 artikulua urratzeagatik, horiek indarrean sartuz geroztik?

Iruñean, 2017ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia aldatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak erabaki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2017ko azaroaren 28koa, zeinaren bidez eskatzen baitu 2017ko abenduaren 5ean eta 7an eta 2017ko abenduaren 26tik 29ra bitarteko astean eta 2018ko urtarrilaren 2tik 5era bitartean goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan izanik aipatu lan-asteetan ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat, hauxe ERABAKI DUGU:

**1.** Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea; halatan, 2017ko abenduaren 5ean eta 7an eta 2017ko abenduaren 26tik 29ra bitarteko astean lanaldia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuen beharriaz horretarako bidea ematen badute.

**2.** 2018ko urtarrilaren 2tik 5era bitarteko astean goizeko lanaldia ezartzea, betiere zerbitzuen beharriaz horretarako bidea ematen badute.

**3.** Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, zeina Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsi baitzen; halatan, 2017ko abenduaren 5ean, 7an eta 26tik 29ra bitarteko astean 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

**4.** Ezartzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroa 09:00etatik 14:30era bitarte egonen dela zabalik 2018ko urtarrilaren 2tik 5era bitarteko astean.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordea.**

### *BATZORDEAREN ONDORIOZTAPENAK ONESTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordeak 2017ko azaroaren 17ko erabaki bat igorri dio Legebiltzarreko Mahaiari, zeinaren bidez eskatzen baitu batzordearen ondorioztapenak onesteko epea 2018ko martxoaren 31ra arte luzatzea.

Erregelamenduko 62. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordearen txostena bukatzeko epea 2018ko martxoaren 31ra arte luzatzea.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



